



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

KIROLAREN ETA JARDUERA FISIKOAREN ARLOAN INDARKERIA, INTOLERANTZIA ETA DISKRIMINAZIOA PREBENITZEKO ETA ZEHATZEKO ERREGELAMENDUA

I. TITULUA **XEDAPEN OROKORRAK**

LEHENENGO KAPITULUA **Alderdi orokorrak.**

1. artikulua – Xedea

Erregelamendu honen xedea da erregelamendu espezifiko bat ezartzea prebenitzeko eta zehatzeko kirol-testuinguruan sor daitezkeen indarkeria- intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak, **Euskadiko Tiro Olinpiar Federazioko** –aurrerantzean, Euskadiko Federazioa– adskripzioa, afiliazioa edo lotura dutenen artean, arreta berezia jarriaz adingabe, nerabe eta emakume nagusien kontrako ekintzetan.

Euskadiko Federazioaren kirol-diziplinako erregelamenduaren edo beste xedapen batzuen esparruan, erregelamendu hau diziplina-araudi berezitzat hartuko da; bestea, berriz, araudi orokortzat joko dira.

2. artikulua – Definizioak

Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, definizio hauek ezartzen dira:

- a) Emakumeen aurkako indarkeria matxista: giza eskubideen urraketa bat da, arazo soziala eta osasun publikoko arazo handia, botere-harreman ez-parekoen eta emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argia, eta, horretaz gainera, generoaren arabera dauden desberdinkeria-egoera estrukturalak betikotzeko funtzio soziala du. Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txiki, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena barne, edo neurri kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan. Indarkeria egikari daiteke zerbait egiteagatik edo ez egiteagatik, eta bitartekoak fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak izan daitezke – mehatxuak, larderia eta hertsapena barne–, baldin eta haien ondorioa bada min, sufrimendu edo kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarearekin lotutakoa.
- b) Sexu-jazarpena: pertsona baten duintasuna iraintzeko asmoa duen edo ondorio hori duen izaera sexuarekiko ahozko jokabide edo jokabide fisiko oro da; bereziki, egoera beldurgarri, iraingarri edo umilgarriren batean burutzen bada.
- c) Sexuan oinarritutako jazarpena: pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, baldin eta haren xedea nahiz ondorea bada pertsonaren duintasunaren aurka egitea, eta larderiakoa, apalesgarria eta ofentsakoa den ingurua sortzea.



Euskal Herriko Tiro Olimpiko Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

Nolanahi ere, diskriminatzailetzat joko dira sexu-jazarpena eta jazarpen sexista.

d) Beste indarkeria matxista mota batzuk:

1. Transfobia: pertsona intersexual, transexual edo transgenoen kontrako ezinikusia edo arbuioa.
2. Lesbofobia: ezinikusia edo arbuioa afektiboki eta sexualki beste emakume batzuekin harremanak dituzten emakumeen kontra.
3. Homofobia: ezinikusia edo arbuioa afektiboki eta sexualki beste gizon batzuekin harremanak dituzten gizonen kontra.
4. Genero barruko indarkeria: kontzeptu honek aipatzen du zer indarkeria gertatzen den, hainbat modutan, sexu/genero bereko pertsonen harreman afektibo eta sexualetan.

Indarkeria-mota horiek azal daitezke hainbat modutan (tratu txar fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexu-indarkeria) eta eremutan (publikoan eta pribatutan).

e) Adingabe eta nerabeen kontrako indarkeria: adingabeei eskubideak eta ongizatea kentzen dieten egintza, omisio edo tratu arduragabe oro, mehatxatu edo oztopatzen duena haien garapen fisikoa, psikikoa edo soziala, edozein dela ere nola eta zer bitartekoren bidez gauzatzen diren.

Aurreko indarkeria-motak bezala, hainbat eremutan eta formatan gerta daiteke (tratu txar fisikoa, psikologikoa edo emozionala, zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak, ez zaintzea edo tratu zabarra ematea, mehatxuak, irainak, kalumniak, esplotazioa, barne harturik sexu-indarkeria, sexu-jazarpena, ziberjazarpena, pronografiarako eskatu gabeko irispidea, estortsio sexuala, datu pribatuen zabalkunde publikoa eta familia-eremuan edozein indarkeria-jokabide azaltzea).

f) Tratu ona: haur eta nerabeen oinarritzko eskubideak errespetatuz, aktiboki printzipio hauek sustatzen dituen tratua: elkarrenganako errespetua, gizakiaren duintasuna, bizikidetzat demokratikoa, gatazken konponbide baketsua, legeak berdin babesteko eskubidea, aukera-berdintasuna, eta debekua haur eta nerabeak diskriminatzeko.

g) Ekintza edo jokabide bortitzak edo kirol-arloko indarkeria pizten dutenak, eta kirol-arloko ekintza arrazista, xenofobo edo intoleranteak: Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeak 2. artikuluan deskribatzen dituen ekintzak.



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

Kasu horietan, Euskadiko Federazioak esku hartuko du, baldin eta beraren jardun-eremu subjektibo, material eta objektiboaren barruan sartzen badira eta ez badira dagokion kirolaren arloko diziplina-batzordearen xede.

3. artikulua – Betebeharrak.

Erregelamendu honetan aurreikusitako esparruan, betebeharrak hauek ezartzen dira:

- a) Kirol-federazioaren beraren eta hari adskribatutako kirol-entitateen betebeharrak, bereziki kirol-klub edo -elkarteenak:
 1. Ezartzea zer neurri eta jardura-jarraibide ondorioztatzen diren erregelamendu honetan aurreikusitakotik edo indarrean diren xedapen arauemailetan aurreikusitakotik.
 2. Kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-zantzurik antzematen edo ezagutzen den une beretik –batik bat adingabeen, nerabeen edo emakume nagusien kontrakoak direnean–, behar den diligentziaz, seriotasunaz, inpartzialtasunaz eta eraginkortasunaz jardutea.
 3. Agintari eskudunen aurrean salatzea zer egitate edo egoera jo daitezkeen indarkeria, intolerantzia edo diskriminaziotzat kirol-arloan.
 4. Arrazoizko epe batean, neurriak hartzea indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzen egileek ezin dezaten jarraitu inongo lanik egiten entitatearen barruan.
 5. Entitateko egituraren barruko pertsona guztiei eman beharreko prestakuntza ematea kirol-arloko indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioa prebenitzeko gaiei buruz.
 6. Behar den babesa eta laguntza ematea kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzetako biktimei.
 7. Beste edozein, zuzenean edo zeharka lotuta dagoena aurreko neurriekin edo erregelamendu honen edukiarekin, eta helburutzat duena amaiera ematea kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzei, edo ekintza horiek prebenitzea edo zehatzea.
- b) **Euskadiko Federazioari** adskribatutako estamentu edo taldeetako pertsona fisikoen betebeharrak (kirolari, teknikari edo entrenatzaileenak, epaileenak, arbitroenak, zuzendaritzako langileenak, ordezkarienak eta abar):



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

1. Kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak prebenitzeari eta zehatzeari dagokionez, kide diren kirol-erakundeek dituzten neurriak edo protokoloak betetzea.
2. Agintari eskudunen aurrean salatzea zer egitate edo egoera jo daitezkeen indarkeria, intolerantzia edo diskriminaziotzat kirol-arloan.
3. Laguntzea kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio ekintzak jasaten dituzten pertsonen.
4. Ez egitea bestelako jokabiderik edo jarduketarik, kirol-arloko indarkeriatzat, intolerantziatzat eta diskriminaziotzat jo daitekeenik.

BIGARREN KAPITULUA

Aplikazio-eremua

4. artikulua. Aplikazio-eremu materiala

Diziplina-eremua hedatzen da **Euskadiko Federazioaren** jardueretan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoei eragiten dieten jardueretara.

5. artikulua - Diziplina-ahala

Diziplina-ahalak bere titular legitimoen eskumena esleitzen die ikertzeko zer indarkeria-, intolerantzia edota diskriminazio-ekintza era daitezkeen federatutako adingabe eta nagusien kontra, eta ekintza horien arduradunak zehatzeko.

6. artikulua - Aplikazio-eremu subjektiboa

Euskadiko Federazioak diziplina-ahala egikaritzeko du bere egitura organikoa osatzen duten pertsona guztien gainean, kirolari, kirol-klub, teknikari, zuzendari eta epaileen gainean, eta, oro har, federatuta egon eta bere lurralde-eremuan funtzioak garatzen, karguak betetzen edo jarduerak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien gainean.

7. artikulua - Diziplina-organoa

1.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziplina Batzordea (KIIDDB) da organo eskuduna diziplina-ahala egikaritzeko. Batzorde hori diziplina-organo espezializatu bat da, *ad hoc* sortua ezagutzeko zer egoera sor daitezkeen **Euskadiko Federazioaren** beraren eremuan eta jardueretan. KIIDDBk federazio-instantzia



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

bakar batean ezagutzen du zer auzigai egon daitekeen kirol-testuinguruan adingabe eta nagusien kontrako indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-kasu edo -egoerak direla-eta, erregelamendu honetan aurreikusten diren termino edo baldintzetan.

2.- Federazioaren barruan joko- edo lehiaketa-arauei eta kirol-arau orokorreari buruzko kirol-arloko diziplinazko arau-hausteak aztertzeke eta ebazteko eskumena duten diziplina-organoek ez dute esku hartuko kirol-arloan adingabe eta nagusien kontrako indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzat jotzen diren kasu edo auzietan. Indarkeria-, intolerantzia- edo diskriminazio-ekintzat jotzen diren kasu edo auzietan egitate edo jardueraren baten berri izanez gero, erregelamendu honetan espresuki aurreikusitako KIIDDBera bideratuko edo bidaliko dira.

8. artikulua – Bateragarritasun juridikzionala

1. Diziplina-araubidea independentea da erantzukizun zibil edo penaletik, bai eta lan-harremanen ondoriozko araubidetik ere, zeina kasu bakoitzean dagokion legeriaren arabera arautuko baita.
2. Ofizioz edo espedientearen instruktoreak eskatuta, diziplina-organoak fiskaltzari jakinarazi beharko dio zer arau-hauste izan daitezkeen delitu penal. Kasu horretan, inguruabarren arabera, prozedura etetea erabakiko da harik eta ebazpen judiziala eman arte. Prozedura etetea erabakitzen bada, hala badagokio, interesdunari entzun, eta kautela-neurriak hartu ahal izango dira, alderdi guztiei jakinarazitako probidentziaren bidez.
3. Erregelamendu honetan aurreikusitakoaz bestelako zehapenik ezartzeak ez du eragotziko, hala badagokio eta bere oinarri desberdina kontuan hartuta, kirol-arloko erantzukizunak argitzea, eta ezin izango da izaera bereko zehapenik ezarri. Egitate batek berak erantzukizun-maila desberdinak eragin baditzake, diziplina-organoak bere esku dituen aurrekariak berri emango dio dagokion agintaritzari, diziplina-prozedura izapidetzeaz aparte. Diziplina-organoak beste erantzukizun bat edo batzuk soilik eragin ditzaketen egitateen berri duenean, eskura dituen aurrekariak helaraziko dizkio, besterik gabe, agintaritza eskudunari.

9. artikulua – Eskumen-gatazka

1. Kirol-erakundeko diziplina-organoen artean gaiak izapidetzeari edo ebazteari buruz sortzen diren gatazka positiboak edo negatiboak Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ebartziko ditu, baldin eta Euskadiko kirol-federazioen edo lurralde-federazioen artean sortzen badira.
2. Organo hauen ardurapean jarri beharko dira diziplina-araudi orokorrean aurreikusitako joko- edo lehiaketa-arauei eta kirol-arau orokorreari buruzko



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

diziplinazko arau-haustek edo araudi honetan aurreikusitako indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzekin lotutako arau-haustek izan daitezkeen gaiak: (i) federazioko diziplina-organo orokorra edo orokorrak, baldin eta lehiaketa federatuen harira epaileek, arbitroek edo kirol-agintariek egindako akta edo txostenetan jasotako egoerak edo gaiak badira; (ii) gainerako kasuetan, Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziplina Batzordea.

HIRUGARREN KAPITULUA

Printzipio informatzaileak

10. artikulua – Diziplina-printzipioak

1. Kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzen ondoriozko arau-hausteengatik erantzukizuna zehazteko orduan, federazioko diziplina-organoak bete egin beharko ditu zehapen-zuzenbideko printzipio informatzaileak.
2. Ezin izango da zehapenik ezarri gertatu aurretik arau-hauste gisa tipifikatuta ez dauden egintza edo ez-egiteengatik; era berean, ezin izango da zehapenik ezarri, egiteagatik edo ez-egiteagatik, inongo arautan jasota ez dagoen zehapen batengatik.
3. Ezin izango da zehapen bat baino gehiago ezarri egitate beragatik, salbu erregelamendu honek osagarritzat ezartzen dituenak, eta soilik hala zehazten den kasuetan.
4. Diziplina-xedapenek atzeraeragina dute arau-hausleari mesede egiten dioten heinean, nahiz eta ebazpena irmoa izan haiek argitara ematen direnean.
5. Diziplina-zehapenak soilik ezarri ahal izango dira baldin eta espediente bat ireki bada horretarako, interesdunei entzunaldia emanda. Interesdunek, berriz, ordezkari bat izendatu ahal izango dute prozeduraren edozein unetan lagun diezaien.
6. Ebazpen zehatzailea beti egon beharko da arrazoituta.

11. artikulua – Berehalako betearazpen-printzipioa eta beste kirol-federazio batzuek ezarritako zehapenak aitortzeko printzipioa

1. Diziplinazko espediente bidez ezarritako zehapenak ararterik gabe exekutatu dira, eta haien kontra jar daitezkeen erreklamazioek eta errekursoek, berriz, ez dute haien exekuzioa geldituko edo etengo. Dena den, diziplina-organoek kautela-neurriak hartu ahal izango dituzte, egoki irizten dituztenak, ziurtatzeko ea zehapena exekutatu den.



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

2. Kirol Federazioaren esparruan eta haren jarduera-eremuan, aitorpen osoa jasoko dute beste kirol-federazio batzuek ezarritako zehapenen ondorioak nahiz eta ez izan irmoak, baldin eta edozein pertsonari edo entitateri ezartzen badizkiete kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak direla-eta. Aitorpen horren ondorioz, zehatutako pertsonak edo entitateak ezingo du parte edo esku hartu **Euskadiko Federazioko** lehiaketetan edo jardueretan.
3. Bermatzeko betetzen dela erregelamenduaren artikulua honen aurreko apartatuan aurreikusitakoa, komunikazio-mekanismo bat ezarriko da, informazioa emango duena lehiaketa federatu ofizialetan parte hartzen ari diren edo parte hartzeko asmoa duten pertsonen edo entitateen ezarritako zehapenei buruz. **Euskadiko Federaziora** adskribatzeak berekin dakar pertsona eta entitate orok onartzea eta baimena ematea federazioak beste entitate batzuei komunikatzeko eta jakinarazteko ea zehapenik duten edozein arau haustearren kirol-arloko indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioa dela-eta.

12. artikulua – Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Arau-hauste oso astunen kasuan, hiru urtera preskribatuko dute; astunen kasuan, urtebetera; eta, arinen kasuan, hilabetera (arau-haustea egin eta hurrengo egunean hasiko da preskripzio-epea). Jarduketa jarraituen kasuan, preskripzio-epea jokabide arau-hauslea amaitzen edo gelditzen denetik hasiko da zenbatzen.
2. Zehapen-prozedura hasiz gero, preskripzio-epea eten egingo da, baldin eta prozedura hilabetez geldirik badago prozedura horren mende dagoen pertsona edo entitateari egotzi ezin zaion arrazoiaren batengatik, eta berriro hasiko da zenbatzen eta etengo da preskripzio-epea, espedientea berriro izapidetzen hasten denean.
3. Zehapenak hiru urteko, urtebeteko edo hilabeteko epean preskribatuko dira, kontuan hartuta ea arau-hausteak oso astunak, astunak edo arinak diren, eta preskripzio-epea zenbatzen hasiko da zehapena ezarri zuen ebazpenak irmotasuna hartu eta hurrengo egunetik aurrera edota betetze hori (hasi bada) urratzen denetik aurrera.

13. artikulua – Zehapenen betearazpena etetea

1. Erreklamazioak edo errekursoak jartze hutsak ez du zehapenen betearazpena geldiarazten edo eteten. Dena dela, baldin eta prozedurari lotutako pertsonak edo entitateak espresuki eta ondo oinarrituta eskatzen badu zehapena geldiarazteko edo eteteko, **Euskadiko Federazioko** diziplina-organoak arrazoiak eman, eta eten ahal izango du ezarritako zehapenen exekuzioa.
2. Aukerakoa izango da zehapenak etetea, eta, horretarako, **Euskadiko Federazioko** diziplina-organoak balioetsi beharko du ea zehapena betetzeak kalte



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

konpongaitzak edo konponezinak eragin ditzakeen.

LAUGARREN KAPITULUA

Erantzukizuna

14. artikulua – Inguruabar aringarriak

Inguruabar aringarriak dira:

- a) Berezko damua.
- b) Errudunak konpondu edo murritzut izana arau-haustearen ondorioak, biktima ase izana, edo bere borondatez egitateak aitortu izana.

15. artikulua – Inguruabar astungarriak

Erantzukizunaren inguruabar astungarriak dira:

- a) Berrerortzea. Berrerortzea dago baldin eta arau-hausleak aurreko bost urteetan zehapenik jaso badu, ebazpen irmo bidez, larritasun-maila bereko edo handiagoko edozein arau-hausterengatik edo larritasun txikiagoko bi arau-hausterengatik edo gehiagorengatik. Epea zenbatzeko, arau-haustea egiten diren uneak hartuko dira kontuan.
- b) Agintekeria edo arau-hauslearen hierarkia-posizioa abantailaz erabiltzea biktimaren gainetik.
- c) Biktima adingabea izatea.
- d) Maltzurkeria erabiltzea, edo arau-hauslearen kaltegabetasuna zuzenean ziurtatzeko bitartekoak, moduak edo formak erabiltzea.
- e) Araua behin eta berriro haustea, horrek berrerortzea eratzen ez duenean.
- f) Berrerortzea, arau-hausleari azken urtean zehapen bat ezarri zaionean izaera bereko arau-hauste bategatik.
- g) Lortutako prezio edo irabazi ez-zilegia.
- h) Aurretik, ohartarazpenik egotea.

16. artikulua – Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak balioestea

- 1. Inguruabar astungarriak antzemanek gero, zehapenaren mailaketa arrazoizko batera doitu beharko da, kontuan hartuz ea hutsegitea oso astuna, astuna edo arina izan den.
- 2. Diziiplina-organoak irizpide hauek erabili ahal izango ditu erabakitzeko zer zehapen aplikatu behar den:
 - a) Egitateen izaera.



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

- b) Erantzulearen nortasuna.
- c) Arau-haustearen ondorioa, edo zer-nolakoak diren sortutako kalteak.
- d) Erruduntasun-maila, edo nahita egin bada.
- e) Zehatutako pertsona fisiko edo juridikoaren jardueraren bolumen ekonomikoa.
- f) Arau-haustean parte hartu duten pertsonen kopuru handiagoa edo txikiagoa.
- g) Egintza edota omisioak behin eta berriro gertatzea, edo haiek egiten jarraitzea.
- h) Arau-hausleak zer lankidetzat maila agertzen duen diziiplina-organoekin.
- i) inguruabar astungarriak edo aringarriak bat etortzea.

17. artikulua – Erantzukizuna azkentzea

1. Kirol-arloko diziiplina-erantzukizuna beti azkentzen da:
 - a) Zehapena betetzen denean.
 - b) Arau-haustea preskribatzen denean.
 - c) Zehapena preskribatzen denean.
 - d) Erruztatutako edo zehatutako pertsona hiltzen denean.
 - e) Erruztatutako edo zehatutako kirol-entitatea azkentzen denean.
 - f) Zehapena barkatzen denean.
2. Federatu-izaera galtzeak ez du ekarriko diziiplina-erantzukizuna azkentzea, nahiz eta, kasu batzuetan, ezarritako zehapenen afektibitateari eragin diezaiokeen.

BOSGARREN KAPITULUA **Funtzionamendu-araubidea**

18. artikulua – Batzordekideak izendatzea. Titulazioa

1. **Euskadiko Kirol Federazioen Batasunari** dagokio izendatzea zer kidek osatuko duten Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordea (KIIDDB), eta espresuki adieraztea nork bereganatuko duen batzordeburutza.
2. KIIDDB kide anitzeko organoa izango da, eta kide-kopuru bakoitia izango du. Batzordekideetako bat batzordeburu izendatuko da. Aditu-txosten edo -iritzi espezializaturik behar izanez gero, batzordeburuak eskatu ahal izango du beste pertsona batzuk bertaratzea edo parte hartzea KIIDDBko saioetan. Pertsona horiek, bestalde, ezagutzak izan beharko dituzte azertu beharreko gaiei buruz, eta hitza izango dute, baina botorik ez. KIIDDBk pertsona bat eduki ahal izango du, kide izan gabe administrazioko edo idazkaritzako lanak egiten dituenak.
3. KIIDDB osatzen duten pertsonak Zuzenbideko lizentziatura edota gradu titulua



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

izan beharko dute, eta prestakuntza edo esperientzia egiaztatua genero-berdintasunean edota sexu-indarkerian edota adingabe eta haurren babesean.

4. Atxikipen-dokumentu bidez, **Euskadiko Federazioak** bere burua harpidetu ahal izango du diziiplina-batzorde espezializatu honetan, zeina UFDV-EKFBk bere entitateen eskura jartzen baitu.

19. artikulua – Funtzionamendu-araubidea

KIIDDBk independentzia funtzionalarekin jardungo du, eta, ebazpenak hartzeko, ez du onartuko beste inoren esku-sartzerik.

SEIGARREN KAPITULUA **Diziiplina-prozedura**

1. ATALA **Xedapen orokorrak**

20. artikulua – Egitateak edo salaketak ezagutzea. Aurretiazko eginbideak

Egitate edo salaketen berri dakienean, probidentzia eman aurretik, KIIDDBk erabaki ahal izango du informazio erreserbatua instruitzea, probidentzia ematea, erabakitzen duena espedientea hastea edo – hala badagokio– jarduketak artxibatzea.

21. artikulua. Ebatzi beharra

KIIDDBk, gehienez ere gehienez ere, hamabost eguneko epean izapidetzeko onartu edo espresuki baztertu beharko ditu aurkeztzen zaizkion eskaerak edo erreklamazioak. Epe hori igarotakoan, eskaera-erreklamazioak ezetsizat joko dira.

22. artikulua. Interesdunaren kontzeptua

1. Arau-haustea eragin duten ekintzen erantzukizuna haien erantzule diren pertsonen egotziko zaie, baita arau-haustea ere baldin badatza arauak ez betetze soilean bada.
2. Hauek dira prozedurako interesdunak:
 - a) Prozedura-sustatzaileak, eskubide edo interes legitimo indibidual edo kolektiboen titular modura.
 - b) Prozeduran hartzen den erabakiak uki ditzaketen eskubideak dauzkaten pertsonak, nahiz eta haiek ez hasi prozedura.



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

- c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.

23. artikulua – Entzunaldi-izapidea

Prozedura guztietan nahitaezkoa izango da pertsona edo entitate interesdunei entzuteko izapidea ematea, eta hamar egun balioduneko epea emango zaie, gehienez ere, alegazioak aurkezteko edo ordenamendu juridikoak onartzen dituen defentsa-bitartekoak erabiltzeko.

24. artikulua – Behin-behineko neurriak

1. Prozedura hasita eta proportzionaltasun-printzipioari atxikita, hura abiarazteko eskumena duen organoak egokitzen jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko. Behin-behineko neurriak prozeduraren edozein unetan hartu ahal izango dira, bai ofizioz, bai instruktorearen mozio arrazoituaren bidez. Hartzen den akordioa behar bezala arrazoitu beharko da.
2. Ezin izango da hartu behin-behineko neurriak, kalte konponezinik eragin dezakeenik. Dena den, behin-behineko neurriak hartzean, lehentasuna emango zaio interes orokorrari edo kolektiboari, eta ez indibidualari edo partikularriari, baldin eta kasuak, egitate eztaba daezinen oinarrian, gertatu badira egoera larrietan eta oso inportanteetan, zeinek eskatzen baitute neurriak hartzea kirol-arloko indarkeriarekin, intolerantziarekin edo diskriminazioarekin lotutako egintzen ustezko egileentzat, behin-behinean etetea barne.

25. artikulua – Espedienteak metatzea

1. Ofizioz edo interesdunak edo entitateak eskatuta, diziplina-organoak erabaki ahal izango du espedienteak metatzea baldin eta nahikoa nortasun- eta analogia-izaera duten inguruabar subjektiborik edo objektiborik badago, gomendatzen duenak izapidetze eta ebazpen bakarra egitea.
2. Metatzeko akordioa probidentzia bidez jakinaraziko zaie prozeduran interesa duten pertsona edo entitateei, edo ematen den ebazpenaren aurrekari gisa jasota.

BIGARREN ATALA

Prozedura.

26. artikulua – Prozedura. Xedea

Prozeduraren izapideak egingo dira legeria orokorreko printzipio eta arauen eta



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

27. artikulua – Hasiera

1. Diziplina-espedienteari hasiera ematen dion probidentziak instruktorearen izendapena jasoko du. Instruktoreak Zuzenbideko lizentziatura edo gradu titulua izan beharko du, eta espedientea izapidetzeaz arduratuko da.
2. Beharrezkotzat jotzen bada, probidentzian jasoko da, halaber, pertsona bat idazkari izendatuko dela, espedientea izapidetzen den bitartean laguntzeko.

28. artikulua – Instruktorea eta idazkaria

1. Instruktoreari eta, hala badagokio, idazkariari abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak aplikatuko zaizkie, Estatuko legerian administrazio-prozedura erkiderako aurreikusten direnak.
2. Interesdunek hiru egun balioduneko epean egikaritu ahal izango dute errekusazio-eskubidea, izendapen-probidentziaren berri izan eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hura eman zuen organoaren aurrean; organo horrek, bestalde, beste hiru egun balioduneko epean ebatzi beharko du.
3. Hartzen diren erabakien aurka, ezin izango da errekurtsorik jarri; dena den, administrazio administratiboa edo jurisdikzionala alegatzean —kasuan-kasuan dagokiona—, aukera egongo da errekusazioa alegatzeko.

29. artikulua – Instrukzioa

Instruktoreak aginduko du eginbide egokiak bidera daitezela egitateak zehazteko eta egiaztatzeko, bai eta zehapena jaso dezaketen arau-hausteak finkatzekoak behar direnak ere.

30. artikulua – Frogak

1. Behin instruktoreak erabaki eta gero froga-fasea irekitzea, edozein frogabideren bidez egiaztatu ahal izango dira prozedurarako garrantzitsuak diren gertakariak. Fase horrek ez du iraungo hamabost egun baliodun baino gehiago, ez bost egun baino gutxiago, eta interesdunei behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaie non eta noiz egingo den.
2. Interesdunek froga-fasea hasi aurreko edozein unetan proposatu ahal izango dute edozein froga egitea, edo, froga horiek, interesgarriak badira, zuzenean aurkeztu ahal izango dituzte espediente behar bezala ebazteko. Interesdunek



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

proposatutako frogak espresuki edo isilbidez ukatzearen aurka, pertsona horiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote, hiru egun balioduneko epean, espedientea ebazteko eskumena duen organoari, eta organo horrek beste hiru eguneko epean eman beharko du ebazpena. Erreklamazioa jartzeak ez du inoiz ere espedientearen izapidetzea etengo.

31. artikulua – Kargu-orria eta ebazpen-proposamena.

1. Egindako jarduketak ikusita eta prozedura hasi eta gehienez ere hilabeteko epean, instruktoreak largespena proposatuko du, edo kargu-orria egingo du; bertan, egotzitako egitateak, inguruabarrak, ustezko arau-hausteak eta aplikatu daitezkeen zehapenak adieraziko dira. Instruktoreak, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango dio ebazteko eskumena duen organoari.
2. Kargu-orrian, instruktoreak ebazpen-proposamen bat aurkeztuko du, eta interesdunei jakinaraziko zaie beren eskubideak edo interesak defendatzeko egokitutako jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten, hamar egun balioduneko epean. Kargu-orrian, halaber, instruktoreak proposatuko du behin-behineko neurriak mantentzea edo kentzea, baldin eta halako neurriak jarri bada.
3. Aurreko apartatuan adierazitako epea igarota, instruktoreak, izapide gehiagorik gabe, espedientea helaraziko dio ebazteko eskumena duen organoari, eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak gehituko zaizkio.

3. ATALA

Ebazpenak

32. artikulua – Ebazpena

Organo eskudunaren ebazpenak amaiera ematen dio kirol-arloko diziiplina-espedienteari. Espediente hori, gehienez ere, hamar egun balioduneko epean eman beharko da, instruktoreak espedientea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

33. artikulua – Ebazpenaren edukia

Ebazpenean, behar bezala adieraziko da zein den zehatzen den egitatearen tipifikazioa, aipatuz zer arau urratzen duen eta adieraziz zer errekurtso jar daitezkeen, zer organori zuzendu behar zaion errekurtsoa, eta zer epe dagoen horretarako.



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

34. artikulua – Jakinarazpenak

1. Probidentzia edo ebazpen guztiak lehenbailehen jakinaraziko zaizkie pertsonatzen diren interesdunei edo prozeduran aurkeztu eta interesdun legitimo direnei. Jakinarazteko epea, gehienez ere, hamar egun baliodunekoa izango da, jakinarazpena eman den egunetik zenbatzen hasita.
2. KIIDDB Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko idazkariak egingo ditu jakinarazpenak, eta jakinarazpenok jaso beharko dute hala diziiplina-organoak hartutako erabakiaren testu osoa nola erabaki hori hartu duten batzordekideen izenak ere. Jakinarazpenak Administrazio Prozedura Erkidearen legeriaren araberrako edozein bidetatik egingo dira, bide elektroniko, informatiko eta telematikoa barne; betiere, bermatzen bada jakinarazpenak kautoak direla, osorik eta egoera onean daudela eta interesdunak behar bezala jasotzen dituela.
3. Kirolari, entrenatzaile, teknikari, ordezkari eta zuzendaritza-kideei egin beharreko jakinarazpenak haien unean uneko kirol-klubean egin ahal izango dira. Jakinarazpenek balioa izango dute ondorio guztietarako.
4. Dagokion web-orriaren bidez, argitara eman ahal da zer ebazpenek ezartzen dituzten diziiplina-zehapenak. Argitalpenak, berriz, muga hauek errespetatu beharko ditu:
 - a) Zehapenak soilik emango dira argitara exekutiboak direnean.
 - b) Argitalpenean, soilik jasoko da nor den arau-hauslea, zein den taldea, zer arau hautsi den, eta zer zehapen ezarri den.
 - c) Zehapenaren iraunaldia amaitzen denean, ezabatu egin beharko da argitalpen hori.
 - d) Ez da argitaratuko zehapenik hamalau urtetik beherako adingabeei ezarritakorik, salbu, lehiaketaren izaera dela-eta, erabakitzen bada bidezkoa dela argitaratzea.
 - e) Soilik lehiaketan parte hartzen dutenek izango dute irispidea informaziora.
 - f) Neurri teknikoak hartu beharko dira, Interneten argitaratutako informazioa kapturatu edo indexatu ez dadin bilaketa-tresna bidez.
 - g) Nolanahi ere, dagokion web-orrian ohartarazi beharko da ezen argitaratutako informazioa, gero, soilik landu ahal izango dela kirol-arloko diziiplina-helburu hutsetarako, ez beste ezertarako.

35. artikulua – Zehapen-erregistroa

KIIDDBko idazkaritzak zehapen-erregistro bat izango du, zehatza eta egunean-egunean eramango dena. Bertan inskribatuko da hala zer akordio hartu diren diziiplina-espedienteak hasteko nola zer ebazpen eman diren, eta adieraziko da zer zehapen ezarri den, halakorik



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

ezarri bada. Erregistroaren xedea da, besteak beste: kontrolatzea zein den zehapenaren betetze-maila, eta zein arau-hausteen eta zehapenen preskripzio-epea.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

Errekurtsoak

36. artikulua – Federazioaren organoek emandako ebazpenen aurkako errekurtsioak

KIIDDBk eman eta federazio-bidea amaitzen duten ebazpenen aurka, errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean.

37. artikulua – Epeak zenbatzeko modua

1. Errekurtsoak edo erreklamazioak aurkezteko epea zenbatuko da ebazpena edo probidentzia jakinarazi eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, baldin eta ebazpen edo probidentzia horiek espresuak badira.
2. Espresuak ez badira, epea hamabost egun baliodunekoa izango da, eskaerak, erreklamazioak edo errekurtsioak ezetsitzat jo behar diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

38. artikulua – Ebazpenen edukia

Jakinarazpenak ebazpenaren testu osoa jaso beharko du, eta adierazi beharko du behin betikoa den ala ez, zein erreklamazio edo errekurtsio jar daitezkeen, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan.

39. artikulua – Datuak irispidean izateko eskubidea

Interesdunek eskubidea dute irispidea izateko espediente baten parte diren erregistro eta agirietara; hargatik eragotzi gabe datuak babesteko indarreko arauditik eratorritako betebeharrei buruzko erreserbak. Hala ere, hiru kasutan uka daiteke eskubide hori, modu arrazoituan: interes publikoko arrazoiak gailentzen direnean, babesteko egokiagoak diren hirugarrenen interesak daudenean, edo lege batek hala xedatzen duenean; kasu horietan, organo eskudunak ebazpen arrazoitua eman beharko du.



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

II. TITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

LEHENENGO KAPITULUA

Arau-haustek

40. artikulua – Sailkapena

Arau-haustek oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke, larritasun-mailaren arabera.

41. artikulua – Arau-hauste oso astunak

Arau-hauste hauek edo antzekoak arau-hauste oso astuntzat joko dira:

- a) Sexu-xantaia: kirolariari zenbait kirol-sari edo -abantaila eskaintzea eduki sexualeko mesedeak egiteko prestasunaren truke, eta mehatxatzea errepresaliak egongo direla horri uko egiten badio.
- b) Inguru-jazarpen sexista: kikilduta, erasotuta edo laidoztatuta sentitzeko moduko giroa sortzea, eduki sexuala edo sexista duten adierazpenen bidez.
- c) Kontaktu fisiko gehiegizkoa eta desegokia: nahi gabeko gorputz-kontaktua, besarkadak, estutzeak eta gorputz-hurbiltzeak, bereziki larriak direnean.
- d) Irudi pornografikoak edo eduki sexualeko objektuak erakustea, eta kirolariekin batera bideo edo film erotiko pornografikoak bistaratzea, edo halakoak ematea; larritasun berezia antzemanetz, kontuan izanik zer testuinguru edo egoeratan gertatzen den hori.
- e) Kirolariei leku erreserbatuetan ezkutuan begira egotea, hala nola aldageletan eta komunetan; baldin eta larritasun bereziko inguruabarrak gertatzen badira.
- f) Zaintza muturrekoa eta etengabea dakarten jarrerak.
- g) Errepresaliak hartzea jazarpen-ikerketak salatzen dituzten pertsonen kontra, haien lekukotza ematen dutenen kontra, lagundu edo horietan parte hartzen duten pertsonen kontra.
- h) Errepresaliak hartzea sexu-jazarpen eta -abusuen aurka egiten duten pertsonen aurka, dela beren buruarenganako jazarpen edo abusua salatzen dutenen kontra, dela hirugarreganako salatzen dutenen kontra.
- i) Eraso fisikoa dakarten egintza guztiak.
- j) Adingabe edo nerabeen kontrako ekintzak, bereziki larriak direnean.
- k) Larriki ez betetzea obligazio edo betebeharrak, aurreikusten direnak adingabe edo nerabeen indarkeriaren kontrako babesaren arloko xedapen arauemaileetan.
- l) Diskriminazioa dakarten ekintza guztiak, bereziki larriak direnean.
- m) Larriki ez betetzea obligazio edo betebeharrak, berdintasun-arloko xedapen arauemaileetan aurreikusten direnak.
- n) Delitua eratzen duten egitateak.
- o) Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legeren 123. artikuluan aurreikusten



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

direnak kirol-arloko indarkeriari, intolerantziari eta diskriminazioari buruz.

42. artikulua – Arau-hauste astunak

Arau-hauste hauek edo antzekoak arau-hauste astuntzat joko dira:

- a) Kontaktu fisiko gehiegizkoa eta desegokia: nahi gabeko gorputz-kontaktua, besarkadak, estutzeak eta gorputz-hurbiltzeak.
- b) Kirolariei leku erreserbatuetan ezkutuan begira egotea, hala nola aldageletan eta komunetan.
- c) Nahi gabeko zaintza etengabea dakarten jarrerak.
- d) Behin eta berriro *dei galduak* egitea, inguruabar astungarriak daudenean.
- e) Keinu lizunak.
- f) Banakako entrenamenduaren bidez, adingabeak bakartzea.
- g) Behin eta berriz deskalifikazio publikoak egitea pertsona bati buruz eta haren errendimenduari buruz.
- h) Iruzkin umiliagarri jarraituak egitea kirolariaren itxura fisikoari, ideologiari edo sexu-aukerari buruz.
- i) Esapide oldarkorrak, ondoeza eragiten dutenak eta aurkako giroa sortzen dutenak.
- j) Agindu umiliagarriak ematea.
- k) Hitzezko erasoak, larderia edo hertsapena.
- l) Esapide oldarkorrak, beldurra edo ikara eragiten dutenak, eta nagusikeria adierazten dutenak.
- m) Gorputzeko alderdiren bati buruzko mespretxuzko iruzkinak.
- n) Jantzeko eta apaintzeko moduari buruzko mespretxuzko iruzkinak.
- o) Esapide, txantxa eta iritzi homofoboak, orokorrak nahiz sexu-orientazioari buruzkoak.
- p) Sexu-proposamenen bidez eragindako hitzezko larderia.
- q) Gonbidapen lizunak edo norbait estutasunean jartzekoak.
- r) Eduki sexuala duten mezu elektronikoak bidaltzea.
- s) Irudi pornografikoak edo eduki sexualeko objektuak erakustea, eta kirolariekin batera bideo edo film erotiko pornografikoak bistaratzea, edo halakoak ematea.
- t) Sexu-konnotazioak dituzten zirikadak edo irainak.
- u) Jazarpen- eta abusu-ekintzak prebenitzeko eta zigortzeko neurriak edo protokoloak ez inplementatzea, baldin eta horrelako kasuak eragozteko modukoak badira.
- v) Jazarpen- eta abusu-kasu posible baten zantzuak edo datuak izan direnean, ez egitea beharrezkoak diren ikerketa-jarduerak.
- w) Ez salatzea agintari eskudunen aurrean jazarpenatzat edo abusutzat har daitezkeen egitateak edo egoerak.
- x) Ez hartzea beharrezkoak diren neurriak, eragozten dutenak jazarpen- eta abusu-ekintzen egileek lanean jarraitzea entitatearen barruan.
- y) Ez ematea behar duten babesa eta laguntza jazarpen- eta abusu-ekintzen biktimei edo biktima izan daitezkeenei.



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

- z) Adingabe edo nerabeen kontrako indarkeria-ekintza larriak.
- aa) Diskriminazioa dakarten ekintza guztiak, larriak direnean.
- bb) Ez betetzea obligazio edo betebeharrak, larriak izan eta aurreikusita daudenak adingabe edo nerabeen indarkeriaren kontrako babesaren arloko xedapen arauemaileetan.
- cc) Ez betetzea obligazio edo betebeharrak, larriak izan eta aurreikusita daudenak berdintasun-arloko xedapen arauemaileetan.
- dd) Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legeren 124. artikuluan aurreikusten direnak kirol-arloko indarkeriari, intolerantziari eta diskriminazioari buruz.

43. artikulua – Arau-hauste arinak

Arau-hauste hauek edo antzekoak arau-hauste arintzat joko dira:

- a) Iruzkin sexistak, emakumeak oro har barregarri uzten dituztenak.
- b) Iruzkin sexistak, emakumeen jarduera zalantzan jartzen dutenak edo barregarri uzten dutenak.
- c) Gorputzaren alderdi edo ezaugarriren bati buruzko iruzkin desagokiak.
- d) Iruzkin desagokiak, janzteko eta apaintzeko moduari buruzkoak.
- e) Hitz zantarrak, biraoak eta izaera sexual eta sexistako esapideak.
- f) Eduki sexualeko broma, iseka edo txiste desatseginak.
- g) Zuzenketa taktiko-tekniko zakarrak, hitz zantar eta irainekin egindakoak.
- h) Keinu eta mugimendu lizunak, izaera sexualeko iruzkinak babesten edo ordeztzen dituztenak.
- i) Begirada lizunak eta iraunkorrak.
- j) Sexu-konnotazioa duten txistuak.
- k) Emakumezko kirolariei mezu desagokiak bidaltzea.
- l) Sare sozialen bidez, nahi gabeko jarraipena egitea.
- m) Behin eta berriz *dei galduak* egitea.
- n) Aurreko artikuluko r, s, t, u, v apartatuetan aurreikusitako egintzak edo ez-egiteak, larritasun berezirik ez dutela jotzen denean.
- o) Larriak izan ez arren, adingabe edo nerabeei negatiboki eragin diezaieketen egintzak.
- p) Diskriminazioa dakarten ekintzak, arau-hauste astuntzat jotzen ez direnak.
- q) Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legeren 125. artikuluan aurreikusten direnak kirol-arloko indarkeriari, intolerantziari eta diskriminazioari buruz.

BIGARREN KAPITULUA

Zehapenak

44. artikulua – Arau-hauste oso astunen zehapenak

Erregelamendu honen 41. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso astunak egiteagatik,



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

zehapen hauek ezarriko dira:

- a) Lizentzia urtebetetik bost urtera bitarteko aldi batez etetea.
- b) Lizentzia behin betiko kentzea.
- c) 6.001 eta 60.000 euro arteko isuna.
- d) Kirol-instalazioa ixtea, gutxienez hiru partidarako eta gehienez ere bi denboraldirako.
- d) Urtebeterako desgaitzea karguak eta funtzioak betetzeko, eta gehienez ere bost urterako.
- f) Kategoriaz edo kategoriez jaistea.
- g) Behin betiko kanporatzea jokotik, probatik edo lehiaketatik.
- h) Aldi baterako kanporatzea jokotik, probatik edo lehiaketatik.
- e) Urtebetetik bost urtera bitarteko aldi batean, debekatzea kirol-probetara edo kirol-lehiaketetara sartzea.
- j) Ateak itxita daudela jokatzeko jokoak, probak edo lehiaketak.
- k) Jardunaldi bati edo proba bati baino gehiagori dagozkion puntuak, partidak edo sailkapeneko postuak galtzea.

45. artikulua – Arau-hauste astunen zehapenak

Erregelamendu honen 42. artikuluan tipifikatutako arau-hauste astunak egiteagatik, zehapen hauek ezarriko dira:

- a) Lizentzia, gutxienez, hilabeterako etetea, eta, gehienez ere, urtebeterako.
- b) 601 eta 6.000 euro arteko isuna.
- c) Kirol-instalazioa, gehienez ere, bi partidarako ixtea.
- d) Urtebeterako desgaitzea karguak eta funtzioak betetzeko.
- e) Behin betiko kanporatzea jokotik, probatik edo lehiaketatik.
- f) Aldi baterako kanporatzea jokotik, probatik edo lehiaketatik.
- e) Gehienez ere urtebeterako debekatzea kirol-probetara edo kirol-lehiaketetara sartzea.
- h) Ateak itxita daudela jokatzeko jokoak, probak edo lehiaketak.
- k) Jardunaldi edo proba bateko puntuak, partidak edo sailkapen-postuak galtzea.
- j) Kargu-hartze pribatua.
- k) Kargu-hartze publikoa.

46. artikulua – Arau-hauste arinen zehapenak

Erregelamendu honen 43. artikuluan tipifikatutako arau-hauste arinak egiteagatik, zehapen hauek ezarriko dira:

- a) Lizentzia, gehienez ere, hilabeterako etetea.
- b) 600 eurora arteko isuna.
- c) Jokotik, probatik edo lehiaketatik behin-behinean kanporatzea.
- d) Kargu-hartze pribatua.



Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakundea
Federación Vasca de Tiro Olímpico

Apartado Correos 445 – 01080 VITORIA – GASTEIZ
Ctra. Nacional 102, p.k. 347,200
01195 ZUAZO DE VITORIA (GASTEIZ)
www.euskaltiro.com
E-mail: euskaltiro@euskaltiro.com
Teléfono: 945 14 94 40

Inscrita en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco con el nº 84 – C.I.F. G -01039908
MIEMBRO DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

e) Kargu-hartze publikoa.

47. artikulua – Diru-zehapenak

Egindako lanagatik ordainsariak jasotzen dituztenen kasuan soilik ezarri ahal izango dira isun-zehapen pertsonalak. Kasu horretan, diru-zehapenak ezarriko dira, eta haien zenbatekoa aldatu egingo da: kasuan kasuko tipifikazioa eta larritasuna nolakoa, zehapena halakoa.

Xedapen gehigarriak

Lehena. - Diziiplina-kode honetan jasotzen diren arauzko erreferentziak eta igortzeak gaur egun indarrean daudenei buruzkoak dira, baita etorkizunean haiek ordezkatzakenei buruzkoak ere.

Bigarrena. - Epeak zenbatzeko, **Euskadiko Federazioaren** egoitzako egutegi ofizialean zer ezarri, hori aplikatuko da.

Xedapen indargabetzailea

Erregelamendu honek indarrik gabe uzten ditu **Euskadiko Federazioaren** barruan erregelamendua indarrean sartu aurretik aplikatu ziren aurreko dokumentu edo xedapen guztiak.

Azken xedapena

Erregelamendu hau indarrean jarriko da eta eragina izango du, lehenbizi, **Euskadiko Federazioaren** Batzar Nagusiak eta, geroago, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zuzendaritzak onartu ondoren eta erregistroan inskribatu ondoren.